

#### IV. Oinarri materialak. Estrukturen bilakaera.

\*Hasi komunei buruz Zizêk-ek egindako hitzaldiarekin (Youtube). Helburua: azken finean, analisi historikoan eremuak bereiztea oso zaila dela frogatzea izango litzateke helburua. Ez dut pentsatzen, pasadan mendeko marxistek uste zuten bezala, azpiegitura edo estruktura materialak, hau da, gaur egun 'ekonomia' moduan ezagutzen dugunak, kulturaren, politikaren eta mentalitateen alorrak automatikoki azaldu ditzakeela.

\*Hala ere, ukaezina da mundu materialak, produktuen eta zerbitzuen zirkulazioak, aberastasunaren / errentaren distribuzioak, beste gauza asko azaltzen dituela eta, zentzu honetan, ekonomia ezin dela alde batera utzi. XX. mendeko historialari marxistek lan mordoa eta, oso ona egin zuten. Alabaina, ekonomiak beste guztia, gizabanakoen pentsamoldea barne, determinatzen duela aditzera ematean erratzen ziren. Galdera: XVI. mendean zehar Bizkaian, Gipuzkoan, eta Arabako iparraldeko bailaretan gertatutako baserriaren hedatzea, faktore material hutsen bidez azaltzea posible al da?

\*Orain dela egun batzuk ikusi genuen, gogoratzen baduzue, *oikonomia*-ren kontzeptua. Hau da, etxean oinarritutako munduaren ikusmoldea, esparru politikora ere transferitzen zen kontzeptua, politika etxean eta familian eratutako harremanetatik abiatuz egituratzen baitzen. 'Ekonomia', gaur egun ulertzen dugun modura, XVIII. mendeko kontzeptua da (*ekonomia politiko*). Hau kontutan hartu behar da objektuari/gaiari heldzean, irabaziak maximizatzea (*Chrematistica*) ez baita gizarte honetan lehendabiziko helburua izango (batzuetan, ohorea mantentzea izango da; beste batzuetan, komunitatearen oreka bermatzea; beste batzuetan, azkenik, baliabide naturalen – basoaren, jabego kolektiboaren – zaintzea).

\*Orain arte, ikasturtea hasi genuenetik, maiz aritu gara euskaldunen noblezia edo kaparetasun kolektiboaz. Ez gara gaur gai honetan sartuko. Hala ere, berebiziko garrantzia dauka hurrengoak ulertzeak: berdintasunaren ideologia eta noblezia kolektiboa ez dira aire hutsetik sortutako / agertutako nozioak, probintzien eta Nafarroako erresumako iparraldeko bailara kapareetan zeuden eragile sozioekonomikoen barnean aztertu behar dira. Ez da harritzekoa Arabako eta Nafarroako hegoaldeko lurraldeek ezaugarri kultural hau ez edukitzea, haien ingurune sozioekonomikoa bestelakoa baitzen. Ikusiko ditugu egun bi hauetan merkatariak, langileak eta nekazari hutsak ziren pertsonak 'noble' izateko modu berezi eta bereizi honen xehetasun batzuk.

\*Horrez gain, kontutan eduki behar dugu gure arbasoen/antzinako euskal herritarren kultura arlo askotan ekonomiari estu-estu lotuta zegoela. Nekazaritzara edo abeltzaintzari nolabait lotuta zegoen gehiengoarentzako, urteko egutegia nekazale-zikloa eta jaiegun kristauak uztartzen zituen aroak antolatzen zuen, Aro Berria aurrera joan ahala Kontrarreformak bere alde paganoenetan ezereztu nahiko duena. Garizuma, Aste Santua, Pazko denbora, Mendekoste, Jasokunde, Abendu, Gabonak, jai/liturgia zikloa beste batekin uztartzen da: Inauteria, Maiatza, San Joan, Domu Santuru, eta Hamabi egunen zikloa (Gabonak).

\*Nekazale-zikloak, urtea, aldi edo parte bitan banatzen du: 1. Aktibitatearena (maiatza, San Joan, Jasokundea), 2. Nekazale-erritmoaren moteltzea (Domu Santuru, Gabonak, Inauteria), udaberrian naturaren pizkundearrekin berriro hasten den zikloarekin Pazko denbora eta maiatza heldzean bizia berriro hasten duelarik.

\*Maiatzean gazteek emankortasuna (*fertilidad*) ospatzen dute, neska ezkongabeen etxeetan maiz arbola berriak jarriz. San Joanen, suaren inguruan egiten diren dantzek eta ospakizunek helburu bi dauzka: a) komunitateko auzokideek nekazale-aktibitatearen atarian euren arteko harremanak estutzea, eta b) zelaietatik espiritu txarrak uxatzea. Jasokundea, leku askotan, sexuz eta lizentziaz betetako jaia zen. Domu Santuru kutsu animista zuen jaia zen. Honen ostean, berriro hasten zen geldotzearen zikloa, gazteen energiak eta komunitate barneko indarkeria desbideratzeko jaiez trufatuta zegoena (Gabonak, janari/afari oparo eta mozkorrekin; 6/8 aste beranduago, Inauteria, eta, ostean, zikloaren berrastea.

\*Mugako ekonomia. Atariko solasa.

\*Ez da nahikoa azpimarratzen euskal lurraldeetako ekonomiaren funtsezko ezaugarri bat: muga lurraldeak izatea eta, hortaz, mugako ekonomia batek baldintzatzea. Frantziarekin muga izateak eta kostaldedun lurraldeak izateak modu determinante batean baldintzatu zuen euskal herritar askoren bizimodua eta, era berean, Gaztelako koroak Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroarengan jarritako konfiantza (faktore honek luzaro eragingo du Koroaren eta lurralde hauen harremanean). Frantziar koroarekiko muga militarra izateak, XVI. mendetik XVIII. mendearen azken hamarkadara arte buruhauste mordera ekarriko dizkie lurralde hauei, baina euren egoera berezia nolabait azaltzeko aukera ematen du.

\*Muga-izaera honek, bai Frantziarekiko, bai Gaztelarekiko, Hego Euskal Herriko ekonomian kontrabandoaren protagonismoa ere azaltzen du. Monarkia mailan, Nafarroa eta Euskal Herriko mendebaldeko probintziak izan ziren kontrabandoaren kontuan arazo gehien sortu zituzten lurraldeak. Arazoaren gakoa euskal erakundeen borondate faltan zitzan, Koroaren legedia oztopatzeko zuten gaitasunean, alegia (zaintzaile edo guarden presentzia, adibidez, edo aduanak kostaldera eramateko ahalegin/entseguak). Monarkiaren behar finantzarioak XVIII. mendean zehar, izugarria zen arazo hau bukatzeko hainbat ahalegin burutu zituen, famatuena 1717ko aduanen lekualdaketa izanik. Ondorioa ezaguna da. 1723 (Araba) eta 1727an (Bizkaia, Gipuzkoa) lortutako akordioek mende guztian zehar kontrabandoaren arazoa euskal erakundeen eskuetan gelditzea izan zuten ondorio. Hala ere, mendea joan ahalez gero, hauekiko mesfidantza goraka joan zen, azkenik Koroaren jarrera zeharo aldatuz eta euskal lurraldeekin talka eginez.

\*Azkenik, muga-ekonomia honen ezaugarriekin bukatzeko, aipatu beharra dago itsaslapurreta (*corso*) eta pirateria. Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdiko kostaldeetan piraten eta itsaslapurren presentzia guztiz ohizkoa izan zen. XVIII. eta XIX. mendeko fortuna ezagun askok itsaslapurretan dute euren jatorria.

\*Biztanleriaren gorabeherak. Demografia XVI. eta XVIII. mendeen bitartean.

\*Has gaitezen biztanleriatik, demografiaren gorabeheretatik. Produkzioaren eta kontsumoaren emaitza izanik, biztanleen kopurua ezagutzeak beste ezaugarri estruktural batzuk ulertzea lagundu gaitzake.

\*Orokorrean, badirudi leinuen arteko gatazken/bando gerren bukaeratik XVI. mendeko azken herenera arte (1450-1570/1575) biztanleriaren hazkunde nabarmena gertatu zela. Hazkunde ukaezin honen ageriko adierazgarria liriateke garai honetan jazotako fenomeno bi:

a) Isurialde atlantikoan bazkaleku edo larre komunalen pribatizazioaren inguruan sortutako gatazka latzak. Hazkunde demografikoak lurren okupazio prozesu berri bat ekarri zuen eta, beharrez, larreen murrizketa. Lur kolektiboen 'itxiera' prozesua abeltzaintzaren atzera-egitearekin lotuta dago, eta ondorioz, nekazaritzaren igoerarekin. Testuinguru honetan sortzen dira baserriak, askotan aurreko lur kolektiboetan ezarriko direnak.

b) Beste alde batetik, autore batzuek uste duten moduan, gune batzuetan kaparetasun unibertsalaren eta, batez ere, kanpotarrak ez ezartzeko aginduek argi erakusten dute baliabide naturalen eta biztanleriaren arteko oreka mantentzeko borondatea (gogora dezagun lurralde hauek Espainia mailan dentsitate demografiko altuena eduki zutela Antzinako Erregimenaren amaierara arte, eta haratago, gaur egun ere ezaugarri bat delarik).



XVI. menderako datuak

\*Bizkaia: zeharkako datuak dauzkagu. Zerga edo errenta ordaintzen zuten etxeen kopurua XVI. mendearen lehen urteetan 818tik 1335era pasatu zen.

\*Gipuzkoa: 10.235 auzokidetik (*vecino*) 13.933 auzokidera.

\*Araba: oso datu gutxi dauzkagu, baina kalkulu batzuek 1537-1560 artean biztanleria %5-%15 hasi zela diote.

\*Iparraldea: ez daukagu kasik daturik.

\*Nafarroa: izurrite beltzaren ondoren, hazkunde nabarmena.

\*XVI. mendearen azken hamarkadetan indize demografikoen gelditze bat nabari daiteke, beste leku batzuetan XVII. mendean jazotako krisia isurialde atlantikoan urte batzuk aurreratzen da, bi arrazoi direla medio: Gaztela eta Flandriaren arteko ardatz komertzialaren krisia, eta 1597-1601 artean gertatutako izurrite atlantikoaren eragina.

\*Kostaldeko probintziek, balearen eta bakailaoaren arrantzari esker, eta artoaren egokitasunari esker (XVI. mendearen erdialdean sartuta, baina XVII. mendean hedatua), XVII. mendeko krisia beste lurralde batzuk baino askoz hobeto pasatu zuen. 1650. urtearen inguruan, biztanleriaren berreskuratzea hasten da.

\*Gipuzkoa izan zen populazioa hoberen berreskuratu zuen lurraldea (1587an 68.675 biztanle, 1704an 94.785),

\*Bizkaian, aldiz, geldialdia luzeagoa izan zen (1511n 69.860, 1704an 68.860).

\*Arabaren XVII. mendeko krisialdia Espainiako beste lurralde batzuen antzeragokoa da: 1537an 72.715 biztanle, 1683an 55.900).

\*Nafarroan, erresuma barneko desberdintasun estrukturalak jarrera demografiko askotarikoak izango ditu ondorio: iparraldean, Bizkaia eta Gipuzkoaren antzekoak; hegoaldean, Arabaren antzekoak.

\*XVIII. mendean, orokorrean, biztanleriaren hazkundera lurralde guztietan, isurialde atlantikoan askoz ere nabarmenagoa eta bizkorragoa.

\*Bizkaia: gutxi gora behera 70.000tik 115.000ra, 1700 eta 1800 artean.

\*Gipuzkoa: gutxi gora behera 95.000tik 120.000ra, 1700 eta 1800 artean.

\*Araba: 55/56.000tik 71.000ra.

\*Nafarroa: mendearen bigarren erdian, hazkunde nabarmena.

\*Ondorioak: oso desberdinak diren modelo demografiko bi daude. Bata, barnealdeko modelo (Nafarroa, Araba); bestea, kostaldeko modelo (Gipuzkoa, Bizkaia).

a) Barnealdeko modeloaren ezaugarriak hurrengoak dira: dentsitate baxua, sexuen arteko parekotasuna, ezkongabetasun indize oso baxua. XVIII.

mendean, zonalde honek XVII. mendean zehar pilatutako atzerakada / geldiunetik bizkor berreskuratuko da.

b) Kostaldeko modeloaren ezaugarriak dira: dentsitate oso altua, sexuen arteko %10aren desoreka; ezkongabetasun maila altua (emigrazioaren ondorio nabarmena), ezkontze adin berantiarra (jaiotza-tasa murrizteko estrategia), heriotza-tasa oso baxua, bizi-itxaropen nahiko altua. Indize hauek garairako bizi-kalitate nahiko altu baten adierazgarri dira (gogoratu hemen John Coverdale-en tesia). XVIII. mendean, behin artoaren sartzearen efektua igarota, isurialde atlantikoan dilema bat ageriko da: hazten jarraitzea, ordura arteko bizitza-maila galtzeko arriskuarekin, edo hazkundera moteltzea. Kostaldeko probintzien hautua bigarrena izango da: hazkundera frenatzea, estrategia defentsibo bat ezarriz: berandu ezkontzea eta gutxi ezkontzea (honek azaltzen du apaiz eta fraideen izugarritzako kopurua Erregimen Zaharraren azken urteetan) eta emigrazioa, aurreko egunean ikusi genuen moduan, primerako garrantzia izan zuen fenomeno.

\*Laburbilduz: XVI. mendetik XVIII. mendearen azken urteetara arte, Hego Euskal Herria 360.000 biztanle ingurutik 530.000 biztanle ingurura pasatu zen. Iparraldeko lurraldeetarako ez dago datu zehatzik: 1841. urtean, 162.000 biztanle zituen.

#### \*Nekazaritza eta baserriko ekonomia

\*Lehenengo eta behin, esan beharra dago nekazaritza ezin dela soilik baserri mundura mugatu, eta baserri mundua ezin dela nekazaritzara mugatu. Hasteko, Euskal Herriko nekazaritza munduan, baserriaren modelo kultural eta produktiboa ez delako askotariko bat baino. Beste alde batetik, baserria ez zen landa-aktibitateetara mugatzen, urtean zehar aktibitate askotarikoak burutzen baitzituzten baserritarrek. Baserria unitate produktibo eta kulturala da, bai, baina bere produkzioa nekazaritza eta abeltzaintzatik haratago doa.

\*Nolanahi ere, Aro Berriko euskal herritarrentzako nekazaritza zen aktibitate garrantzitsuena. Ikuspuntu makroekonomiko batetatik, eremu bi bereiz ditzakegu:

a) Gune edo eremu atlantikoa, baserriaren eremua: zerealen produkzioan defizitarioa eta, beraz, garaiko estandarren arabera, pobrea. Baliabideen eta biztanleriaren arteko oreka lortzea zaila zen eremu honetan. Ikusi berri dugun moduan, oreka hau lortzeko hiru irtenbide dira posible: 1. Emigrazioaren bidez, 2. ezkontza berantiarren bidez presio demografikoa jaitea; 3. Zerealen inportazioa (Foruek aitzakia hau erabiliz, espazio franko edo merkataritzarako libreak direnak sortuko dituzte).

Baserritarrek, dena dela, bizi-iraupenerako balio zuen nekazale-aktibitatea beste aktibitate osagarri mordo batekin osatzen zuten:

\*Basoaren ustiapena, sarritan kolektiboa zena, egurra, ikatza, intxaurrak, gaztainak etab., lortzeko. Basoaren garrantzia berebizikoa da eta bere erabilera erabat araututa zegoen. Alabaina, sektore ezberdinen interesek talka egingo dute maiz, basoaren baliabideak irrikatuak izango baitira oso herrialde hauetako beste aktibitate garrantzitsu birenzako: a) ontzigintza, b) burdingintza.

\*Abeltzaintza, hau ere aktibitate osagarri bezala, Erdi Aro Beratarretik aurrera (prozesua askoz arinago hasten bada ere), abeltzaintzak nekazaritzarekiko atzerakada nabarmena sufritu bazuen ere. Baserritar arruntak ez dauka abere askorik: idi pare bat aberastasun seinale/ezaugarri da eskualde askotan. Behiek eta ardiek esnea eta okela ematen dituzte; txerriak okela, eta etxeke hegaztiak,

arrantzak. Nafarroako bailara pirenaikoak dira eremu honetan salbuespena, larreen ugaritasunak abeltzaintza estentsibo bat posible egingo baitu.

Sagardoa beste produktu garrantzitsu bat da baserriko autarkiarako, eta baserri batzuek badaukate prentsa bat helburu honekin inkorporatuta.

Azkenik, mahastiaren hedapen murriztu bat ere badago eremu honetan, txakolina egiteko, baina nahikoa ez izanik, Errioxatik edo Nafarroatik inportatzea beharrezkoa izango da.

\*Beste alde batetik, nekazale-ekonomia defizitario honek, eremu atlantikoan, arrantzan aurkituko du baliabide osagarri garrantzitsu bat. Mota bi bereiz daitezke:

1. Itsas zabalekoa, hasiera batean bale-arrantzan zentratua. XVI. mendean, zetazeo honek lur hotzagoetara emigratu ahala, arrantzaleak ere Ipar Atlantikora eramango ditu (1530 aldera Terranova-ra helduz). Bailearen interesa koipea/olioaren produkzioan datza, garaiko argitzerako (*iluminación*) funtsezkoa zena. Olio zen, izan ere, Aro Berriaren hasieran, euskal probintzietatik Ipar Europara bidalitako esportazioen atal garrantzitsuenetariko bat. Bakailaoa zen bigarren atal garrantzitsuena.

2. Itsasbatterrekoa: itsasertzean egindako arrantza, kostaldean arrain freskoa saltzeko.

b) *Gune edo eremu barnekoa edo kontinental/mediterranea*: desberdintasunen artean, nekazaritzaren pisua askozaz ere handiagoa dela esan beharko litzateke. Biztanleria nekazalea herrixka txikietan biltzen da, ez dago eremu atlantikoan bezala sakabanatuta. Zerealen produkzioari dagokionez (garia, zekalea), lurralde edo eremu eszedentarioa zen. Soberakinak komertzializatu egiten ziren, beste leku batzuen artea, Bizkaira eta Gipuzkoara bidaltzen zirelarik. Eremu honen hegoaldean kokatzen ziren eskualdeetan, ardogintzaren espezializazioa jazoko da. Nafarroako erresumaren hegoaldeko eremuan, ardi-abeltzaintza oso hedatua dago, baina jabe boteretsuen eskuetan sarritan.

\*Eremu hauek osagarriak izan ziren garai batzuetan, baina gaur egungo euskal lurraldeek ez zuten benetako integrazio ekonomikorik izan):

#### \*Nekazaritza eta klimaren gorabeherak. Ekonomia moral bat

\*Erregimen zaharreko nekazariaren etsai nagusienetariko bat klima da. Honekin batera, errentaren zati bat eramaten duten jabeak eta elizgizonak. Eta, azkenik, gerrak ekarritako ezohiko gastuak. Etsai bi hauen aurka, zer egin?

\*Nekazari ekonomia, erregimen zaharrean, ez zegoen oso monetarizatua. Era berean, zirkuitu finantzarioetatik at geratzen zen sarritan, boteretsuen kredituari ihes eginez (Erregimen Zaharraren azken hamarkadetan, kredituak baserri asko eskuz aldatzera eramango du). Zer egin dezake nekazariak zoritxarrari aurre egiteko, edo koiuntura kaskarrari aurre egiteko, XVI. mendearen azkenean edo XVIII. mendearen azken mendeetan gertatu bezala?

\*Azaldu zer den 'ekonomia morala'. Araban: elizak bultzatutako 'erruki-kutzak' (*arcas de misericordia*, Letraneko kontzilioa eta gero Elizak bultzatutako ekintza), komunitateak osatutako emergentziarako garia interes gabe ematen zutenak

(Letrán, 1515-1517, eta Trentoko, 1545-1563 kontzilioek maileguak interes bakoak izan beharko zirela zioten).

\*Beste leku batzuetan, auzolana bezalako praktikak ezagunak dira.

\*Koiuntura ekonomikoaren gorabeheretatik babesteko,

\*Ekonomia moral hau era biolento / bortitz batean azalarazten da komunitatearen ongizatearen aurkako neurri edo erabaki politikoak hartzen direnean. Euskal Herriko Aro Berrian hain garrantzitsuak izan ziren matxinadak (1631-1634, 1718, 1766, 1804) ekonomia moral honen defentsa sutsua zein puntura arte heldu zitzakeen ederto erakusten du. Matxinadak ezin dira mugatu faktore ekonomikoetara, baina ukaezina da faktore hauek izan zutela euren garrantzi bizia. \*Isurialde atlantikoan jabego zabala edo handia kasik ez zen existitzen. Hegoaldeko mahasti eta gari-zelaietan arruntagoa zen.

\*Aro Berria hastean, euren lurren jabe ziren pertsonen/familien/etxeen portzentaia garairako oso altua zen, %50ekoa inguruan. XVII. mendean, batez ere Araban (XVII. mendeko krisia gogoratu, Araba eta Nafarroan askozaz ere latzagoa, Bizkaia eta Gipuzkoan burdingintza eta ontzigintzaren krisia artoaren sarrerarekin eta ruralizazio prozesu batekin konpentsatzen da), jabe txiki autonomoen kopurua jaitsi zen, notableek eta merkatariek zorpetutako nekazarien lurra erostera ekin baitzuten. XVIII. mendean, joera hau euskal lurralde guztietan (Iparraldea ez dut kontutan hartzen) areagotu egin zen; XIX. mendean hasieran, Bizkaia eta Gipuzkoan, etxeen %60a jabe txikien eskuetan egotetik, %30-%40ra pasatuko da. Ondorioa: eskubide politikoaren galera.

#### \*Baserria. Jatorria, hastapenak, bilakaera

\*XVI. mendeko eta hurrengo mendeetako baserrien estrukturak berak erakusten du baserria ez dela soilik nekazaritzara bideratutako unitate produktiboa. Orokorrean, beheko solairuan, kortak, eskatza/sukaldea, bodega, eta erremintak biltzeko leku bat zegoen.

\*1625. urtean Lope Martínez de Isasti doktore gipuzkoarrak zioenaren arabera, lehenengo baserriak (gaur baserri moduan ezagutzen duguna), basoan isolatutakoak, antzinako abeltzaintzara dedikatutako egurrezko *borda edo extoletatik* sortuak izan ziren. Beste datu batzuk ere honantz apuntatzen dute. Beste egunean esan bezala, leinu gatazkak amaitzen direnetik, baserriak herrixka edo hiribilduetatik gero eta urrunago sortzen hasi ziren, berdintasunaren ideologia berriaren lurraldearen paisaia zeharo aldatuz. Baserrien sorkuntza prozesu hau XVI. mendeko bake eta ekonomia oparo baten testuinguruan eman zen (merkataritzaren espantsioa, burdingintzaren produkzioaren igoera, ontzigintza, etab.).

\*Espazio berrien kolonizazioak eta luberriketek antzinako sarobe edo kortetan baserri mordera sortu ziren.

\*Sarritan, baserria elementu autarkiko eta isolatu bat izango balitz bezala aztertu da. Hala ere, orain dela gutxiko ikerketek baserriaren eta beste esparru ekonomikoaren arteko lotura frogatu dute. Alde batetik, ondorengo bakarraren sistemak beste anai-arrebei konpentsazio/sari ekonomiko bat eman beharrik monetarizazioa/diruaren beharra zekarren. Beste alde batetik, ustiapen nekazale/agrikola askoren biziraupena beste aktibitate batzuekin uztartzearen menpe zegoen (burdingintza – minerala, garraioa, basoa/ikatz).

\*XIX. mendean, burdingintza eta ontzigintza krisian sartzean, lur komunalen salmentek eta lubaki berriek berriro ere paisaia guztiz aldatuko dute eta, bai Bizkaian baita Gipuzkoan ere, baserrien sorrera berriak egingo dira. Garai honetatik dator batez ere guk jaso ditugun baserriaren estereotipoak.

\*Baserri mota asko daude eta zeuden. Modu nabarmen batean kutsu noblea zeukatenak, botere dispositibo moduan eraikitzen zirenak, batez ere lehen belaunaldikoak, errenazentistak, harriaren/harlanduzko lana oso kalitate handikoa dutenak [Altzo, Legarre; Oiartzuneko Makautso]; egurrezkoak, askotan uste izan dugu zaharrenak direla, baina egia esan, merkeenak baino ez dira []; arkupedunak, XVII/XVIII mendeetakoak dira. Arkupe bako gehienak [sarritan herrixkatik aldenduenak], XIX. mendekoak.

### \*Industria

\*Erregimen Zaharreko industriari buruz hitz egitean, batez ere burdingintzari buruz ari gara. Burdinolak Erdi Aroan eduki zuten, iada, berebiziko garrantzia lehendabizi Araban (**ezagutzen diren zaharrenak, IX. mendeko amaieran**), eta beranduago (XIII. mendea) Bizkaia eta Gipuzkoan. Lehenengoak mendietan, alturretan, kokatuak egon ziren (gizakiek mugitutako teknologia erabiltzen zuten), gero (XIII. mendetik) bailaretara pasatu ziren, erreken energia hidraulikoaren bidez habia/martinetek/mailuak mugitzeko erabiltzen zena. Su-egur mordoak erabiltzen zuten.

\*Burdinolek ez zuten zuzenean jende asko enplegatzen, baina era baten edo bestean burdinoretara eta burdinaren produkziara lotutako pertsonen kopurua oso altua zen (**basoaren ustiapena**/ikatz, garraioa). Guztira, prozesu produktiboan biztanleriaren %20-%40 inplikaturata zegoela kalkulatu da.

\*Foruek siderurgia babesten dute (minerala eta ikatza ateratzeko debekuak).

\*Faktore positiboak: oso kalitate oneko minerala (batez ere, Enkarterrietan, Mutiloan eta Zerainen).

\*Burdinolen artean, mota bi bereiz ditzakegu: a) Ola Nagusiak, energia hidraulikoak mugituak, lingote eta/edo totxoei forma ematen ziotenak; b) Ola txikiak, sutegi (*fragua*) baten bidez manufaktura ezberdinak egiten ziren:

\*Lantresnak: aitzurrak, igitia (*hoz*), laiak.

\*Arma (armen produkzioa Urolan kontzentratzen da (Eibar, Soraluze, Elgoibar, Bergara, Arrasate), Koroaren babes/kontrol zorrotzari esker.

\*Ontzigitzarako piezak (untzeak, aingurak, etab.)

\*Eguneroko bizitzarako tresnak (giltzak, untzeak, kandauak, etab.)

\*Burdgingintzaren bilakaera. XVI. mendea gorakada handikoa da. Garai honetan, Bizkaian (Durangalde, Enkarterri, Bilbo aldeko eta Markinako zonaldeetan batez ere) eta Gipuzkoan (Goiherri, Oria, Urumea, Oiartzun, batez ere) 300 burdinola zeudela kalkulatu da. Urtero 5.000/6.000 tona egin ziren garai batzuetan, hau da, Europako produkzio osotik %5-%12. Araban, Zuia eta Aiarako bailaretan kontzentratuta batez ere, 20 bat zeuden. Nafarroan zeudenak, Bortzirietan kontzentratzen ziren.

\*Euskal burdingintzaren ezaugarri iraunkorren artean, ondorengoak aipa genezake: a) izaera tradizionala, Europako beste gune batzuekin konparatuz; b) arrazionaltasun ekonomikoa, hau da, bere garapenerako ingurune baliabideekiko moldapen / egokitasuna (honek, alabaina, *inputekiko* –minerala, ikatz begetala, basoa, erreka- menpekotasun estua sortzen du); c) nekazaritzaren pobretasuna isurialde atlantikoan, inportazioekiko menpekotasuna sortzean, burdingintza suspertzen duena, esportazio sektore bezala egituratuz; d) Monarkiaren protekzionismoa, merkatu penintsular eta amerikarraren monopolioa.

\*Berrikuntza teknologikorik ez sartzeak lehiakortasuna galtzera eramango du industria hau. 1450-1570/75 urteetako ziklo hazkorra/espansiboaren amaierak badauka testuinguru europarrarekin zerikusirik, baina

berrikuntza ez sartzeak ere izan zuen eragina. Ingalaterran, Belgikan, Suedian eta Alemanian ikatz mineralarekin zebiltzan burdinolak euskaldunak kanpo-merkatu batzuk galtzera eraman zuten.

\*XVII. mendeari dagokionez, Alvaro Aragonek krisia erlatibizatu egin du.

\*XVIII. mendean nolabaiteko berreskuratzea jazo zen, burdinolen kopurua eta produkzioaren kopuruari dagokionez. 1710tik 1770era hazkundera. XVIII. mendean zehar, XVII mendearekiko 3 edo 4 aldiz multiplikatu zen produkzioa. Alde batetik, 1. Europako koiuntura onuragarria; b) Koroaren babesa, 1702an Indietara/Amerikara beste edozein lurraldetako burdina eramatea debekatu zuen (espazio erraldoi guzti hura, beraz, olen jabeen eta burdina-merkatarien eskuetan geratu zen). Hortik, burdinola berrien sorrera eta produkzioaren gorakada nabarmena, berrikuntza teknologiko ezta inbertsio berririk egin gabe. Garai honetan, kapital merkatariaren sarrera nabarmena izan zen, aurreko garaietan ez bezala (Karakaseko Erret Konpainiaren rola Debako bailaran, inbertsioak).

\*Gorakada hau 1760/1780 hamarkadan bukatu zen. Faktore bi daude hau azaltzen dutenak:

a) Borboien politika berriaren barnean, 1779-1780 artean euskal burdinei atzerrikoak balira bezalako aduana-zerga ezartzea. Gutxika, Europako beste burdin batzuk sartuko dira ordura arte euskal burdinaren monopolio zuten espazioetan.

b) Produkzioaren kostu gero eta handiagoa (nekazaritzarako egindako lubaki berriek, garraioaren kostuaren igoera, egurraren eskaera beste sektore batzuetatik, ikatzaren kostuaren igoera, etab.)

\*Krisia, datu batzuk: 1800=160 burdinola; 1807-8=135 burdinola. Independentzia Gerra eta gero= gutxi gora behera, 50 burdinola.

### \*Merkataritza

\*Berebiziko garrantzia duen sektorea. Posizio geografikoa faktore oso positiboa izan zen: Iberiar Penintsula eta Atlantikoa, eta Gaztelako lautada eta Kantauriko itsasoa lotzen ditu. Ardatz komertzial oso garrantzitsu batzuen erdian kokatzea berebiziko garrantziko faktorea izan zen. Bigarren faktore garrantzitsua zonalde franko, zerga gabekoa izatea izan zen.

\*Hasiera batean, XV. mendean, euskal merkatariak, edo merkataritzan aritzen zirenak, batez ere Burgoseko merkatarien garraiolari edo bitartekari moduan aritzen ziren. XVI. mendean leinu merkatari bizkaitar eta gipuzkoarrek merkataritza zuzena probatuko dute, ordutik aurrera plaza garrantzitsuenetan merkatari eta bankero moduan aritu zirelarik (Anberes, Rouen, Brujas, Londres, Burgos, Madrid, Sevilla, etab.).

\*Ameriketako merkataritza: Sevillako eta Cadizeko kontsulatuaren bitartez egiten zen. Lehengo egunean ikusi bezala, goizetik egon ziren euskaldunak, euren anaidi babesleekin, Ameriketan ezarrita. Kaparetasunak berebiziko garrantzia izan zuen Inperio mailan ezarri eta merkataritzan aritzeko.

\*Esportazio garrantzitsuenak Gaztelako artilea eta burdina ziren. Inportazioen arloan, nekazaritzaren defizita nolabait murrizteko zereala ekartzen zuten. XVI. mendea, orokorrean, espansiboa da.

\*Gaztela-Flandria ardatz komertziala Sevillan hasten zen (Amerikarekin konexioa), Medina del Campoko plaza finantzariotik pasatu, Burgosera heltzean artilea, eta Kantauriko portuetatik produktu hau esportatu egiten zen Flandriara.



\*XVI. mendeko azken urteetan eta batez ere XVII. mendean, burdinaren demanda/eskaera europarraren beherakada jazo zen; eta krisi kontinentalak eta gerra-egoerak (30 urteetako gerra) Flandriako ardatza zapuztu zuen. Burgoseko merkatarien hegemonia garai honetan bizkor bukatu zen, eta merkatariek euskaldunek ingelesen, holandarren eta portugaldarren bitartekari lanak egingo dituzte artilearen merkataritza. Merkatariek atzeritarren esker, Bilbon XVII. mendearen erdialdean artilearen esportazioaren %70 kontzentratu zen. Atzeritar hauen eta lokalen arteko aliantza ez zen oso luzea izan, azkenengok mende amaieran argi eta garbi atzeritarrek merkataritza lokaletik kanporatzea erabaki baitzuten 1699ko Bilboko Ordenantza berrietan.

\*XVIII. mendea, beste esparru guztietan bezala, espansiboa da. Bilboren gorakada nabarmena izan zen mende honetakoa, artilearen sektore tradizionalan oinarritua. Bere aldetik, gipuzkoarrek, eta arabarrek, euren trafikoa Bilbora desbideratzen zela ikustean, eta kontrabandoaren aurkako Koroaren presioa gero eta latzagoa izanik, neurriak hartu zituzten. Ezagunena, Karakaseko Erret Konpainia Gipuzkoarra, 1728 sortua, modu eksklusibo batean Venezuelako kakao eta tabakoa (beste produktu batzuen artean) inportatzeko pribilegioa zuena, hara burdina, olio, papera, gurinak, etab. esportatuz.

\*Karakaseko konpainiak 1728 eta 1751 artean Donostian izan zuen jarlekua eta, lehenengo urteetan, akziodunei izugarritzko etekinak eman zizkien. 1749ko kriolloen matxinadak, eta Madrilera 1751n jarlekua eramateak, konpainia krisi sakon batean sartu zuten.

\*Izan ere, XVIII. mendeko bigarren erdia merkataritza euskaldunarentzako garai txarra izan zen. 1778an Koroak Amerikako merkataritza liberalizatu zuen (13 portu garrantzitsu gaitu ziren), baina euskal portuak kanpoan utzi zituen. 1765ean, iada, 9 portu gaitu ziren eta, orduntzetik, aduanak barnealdean edukitzeagatik, euskal portuak baztertuta geratu ziren.

[Azaldu Bascongadaren barnean gertatutako eztabaida]

\*Bukatzeke, esan beharra dago merkatariek ez zutela *klase sozial bat* osatzen. Alde batetik, minoristak zeuden, maila txiki batean aritzen zirenak. Bestetik, maioristak. Hauek, sarritan, herrialdeko etxe garrantzitsuenekin lotuko dira. Konbinazio honen fruitua, etxe gutxi batzuetan herrialdearen kontrola zentzu guztietan kontzentratzea izango da. Gainera, merkataritza XVIII. mendean ateratako etekinak industrian inbertitzeak, eta etxe nagusiekin lotura hauek, industria eurek kontrolatzea ekarriko du.

### \*Ontzigintza

\*Erdi Aroan zehar, ontzigintzaren eboluzioa nabarmena izan zen. XIII. mendeko ontzi txikietatik XV. mendeko itsasontzi handi eta bikainetarantz eman zen bilakaera; ontzi berri hauek, sendoak eta pisutsuak, merkatal-garraiorako ez ezik, gerrarako era kosten defentsarako ere baliagarriak ziren oso. XV. mendean, izan ere, ontziola euskaldunen nagusitasun teknikoa defendatzea guztiz zilegi dela esanenez (Europako beste portu batzuetatik ere, Hansakoetatik adibidez, demanda izango dute 1470ean).

\*1480an Errege Katolikoek Monarkiaren galerak eta itsasontziak guztiz martxan zebiltzan Bizkaiko ontziola prestigiotsuetan egitea agindu zuen. Hurrengo urteetan, Monarkiak politika honekin jarraituko du, xedea hurrengo izanik: ontzigintza industria babestea, Koroaren proiektu inperialen zerbitzura jartzeko. Babes honek beste potentzia batzuei euskal ontziak esportatzea ekiditen zuen eta produkzioa Erret Armadarako ontziak

egitera zuzendu zen, ontzi txiki eta ertainen industria behingoz alde batera utzita.

\*XVI. mendean, Carlos I eta Felipe IIrekin, politika inperial honen moldean garatu zen euskal ontzigintza. Koroak estatu-ontziolak ezarri zituen euskal kostaldean (Pasaia San Pedron, Zorrozan edo Pasaia San Juanen, hau 1597an). Ameriketarako merkataritzaren babes bermatzeko 1560. hamarkadan sortutako *flota* sistemak euskal ontzigintzaren gorakada ekarri zuen; baina 1580ko hamarkadan konturatu zen benetan Felipe II. itsasoa kontrolatzearen garrantziaz. Orduan jazo zen benetan euskal ontziolen espezializazioa, ordutik aurrera erregearentzako gerra eta merkataritzarako ontziak egiten espezializatu baitziren. Euskal ontziolak, gipuzkoarrak bereziki, Monarkiaren demanda ia monopolizatu zuten, ontzigile andaluziarrak alde batera utziz<sup>1</sup>.

\*XVI. mendearen azken urteetako deskalabru militarrek (Armada garaiezinarena, adibidez, 1588an) armadore asko arruinatu / suntsitu zituzten. XVII. mendean merkataritzaren atzerakadak ondoez hauek larritu zituen. Dena den, industria honen garrantziaren ideia bat izateko, krisidenderako honako datu hau esanguratsua izan daiteke: 1669 eta 1700 artean, Indietako Karrerarako ontzien %66 euskal ontziolen egin ze<sup>2</sup>n.

\*XVIII. mendean nolabaiteko berreskuratzea jazo zen, merkataritzaren gorakada dela eta. Baina berrikuntza teknikoen ezak krisitik sendo irtetea eragotziko du. Bestalde, 1737an Espainiako kostaldea hiru barrutitan banatzeak (Ferrol, Cádiz, Cartagena) estatu-ontziolen lekualdaketa izango du ondorio, euskal ontzigintzaren demanda/eskariaren faktore garrantzitsuena horrela ezabatuz.

\*Ontziola txikiek ez ezik, hortaz, gerrarako ontzi handiak egiten zituzten ontziolak ere garrantzia galdu zuten (Koroari lotutako artean, mende bukaeran, Zorrotzakoak, Habanarekin komunikatzeko korreo-ontziak eraikitzen zituenak, bakarrik gorde zuten nolabaiteko garrantzia). Pasaia eta Nerbioiko ontzi handiak egiten zituzten ontziolatetik, lehenengoak izango du nolabaiteko garrantzia, Karakaseko Erret Konpainia ontziz hornitzen baitzuen.

### \*Ondorioak: nola baldintzatu zuen ekonomi estruktura honek Euskal Herriaren historia Erregimen Zaharrean?

\*Jon Arrietaren artikuluko ideiak hartu.

“Parece como si quisiera poner en primer término la idea de que en la España del siglo XVI era posible una vida comunitaria pública, concretamente en el Señorío de Vizcaya, basada en la razonable igualdad entre sus miembros y la dedicación a actividades productivas, surgidas de la minería del hierro, empresariales y mercantiles, compatibles todas ellas con el reconocimiento de la condición nobiliaria, hasta el punto de que esta condición adquiriría el plano del reconocimiento de la misma a toda la comunidad constituida por los vizcaínos”. **Honek ez du esan nahi, agian, aktibitate ekonomikoen arteko loturak bizkaitarrak, azken finean, bat egiten zutela Monarkiaren zerbitzura egindako aktibitate batean? Begira hurrengo aipamena:**

“Poza es capaz también de relacionar la cuestión con las condiciones económicas y productivas del Señorío, cuyos habitantes disfrutaban por igual de la posibilidad de la

---

<sup>1</sup> Lourdes Odriozola Oyarbide, *Construcción naval en el País Vasco. Siglos XVI-XIX: evolución y análisis comparativo*, Donostia: Diputación Foral de Gipuzkoa, 2020, 149 orr. [Alex Valledor, *Generales y almirantes vascos en la carrera de Indias: una historia por hacer*, GRAL, UPV/EHU, 2019, 17. orr].

<sup>2</sup> Henry Kamen, *La España de Carlos II*, Barcelona: Crítica, 1981, 179. orr. [Alex Valledor, *Generales y almirantes vascos en la carrera de Indias: una historia por hacer*, GRAL, UPV/EHU, 2019, 17. orr].

explotación del hierro. Este fragmento, que puede pasar desapercibido, resulta muy ilustrativo: «En conclusión: ... aquí a sido y es el escudo y muro de las Españas, aquí el almacén de las armas: fierro, hazero y astas, lanças, picas y dardos los mejores de España» [*Ad Pragmaticas*].

\*“Poza nos sitúa en otra vertiente de la sociedad y de la economía de Vizcaya, cuyos habitantes disfrutaban por igual de la posibilidad de la explotación del hierro, como hidalgos industriosos dedicados a oficios susceptibles de ser considerados «viles» fuera de Vizcaya, como la extracción, producción y manufactura del hierro, principal producto de exportación”.

**“La abundancia de gentes dedicadas al trabajo de explotación del hierro, actividad de libre acceso y abierta a toda la población vizcaína, da lugar a un amplio sector de la población que se gana la vida de manera esforzada, en oficios que traen consigo grandes sudores, incomodidades y fatigas, expuestos a duras condiciones y generalizada suciedad. Pero al mismo tiempo constituía una fuente de riqueza que convenía preservar,** cuidando de ofrecer elementos estimulantes a quienes se hallaban en cualquiera de los puntos de la cadena: extracción de la vena, fundición, manufactura, venta de la producción resultan te, con especial atención a la colocación en el mercado, de lo que se ocupaba un amplio sector mercantil y naviero. La exención de la condición nobiliaria hidalga para los dedicados a estos menesteres por el hecho en sí de manchar sus quehaceres con estas viles actividades, hubiera producido una situación muy negativa para el mantenimiento de los resultados deseados, el fomento de la producción del hierro, su manufactura y venta, por lo que la solución más idónea terminó siendo la consideración de que la dedicación a estas actividades no tenía por qué convertirse en un obstáculo para el disfrute dicha condición hidalga, compartida por la generalidad de la población”.

\*Ez ahaztu aipatzea baliabideak urriak diren gizarte honetan, aktibitate ekonomiko hauen arteko oreka bilatzea garrantzitsua zela guztiz.

\*Ikusi bezala, XVIII. mendearen azken urteetan nabaria dela krisi estruktural bat, arlo guztietan [esplikatu].

\*Alde batetik, isurialde atlantikoan, nekazaritzaren fase espansibo / hedagarri baten amaiera. Lurrak agortu eta, basoa era masibo batean kolonizatu arren, lubakien kalitatea gero eta kaskarragoa izango da.

\*Bestalde, presio demografiko izugarria gertatu XVIII. mendearen azken hamarkadetan eta XIX. lehenengoetan. Kontutan hartu dezagun merkataritza atlantikoaren geroz eta zailtasun handiagoa eta, 1810-1824tik aurrera, euskaldunentzat funtsezkoak ziren Ameriketako lurraldeen emantzipazioa.

\*Atarian esan bezala, euskal herritar gehienak nekazariak baziren ere, kasu gehienetan, eta batik bat isurialde atlantikoko baserri munduan, ez ziren soilik nekazariak: beste sektore batzuetan aritzea ezinbestekoa zen eurentzako (mineralaren garraioa, basoaren ustiapena, burdingintzari lotutako aktibitateak, kontrabandoa, etab.). Burdingintzaren eta merkataritzaren krisiak sistema guztian eragina izango du.

\*Hirugarren elementu bat gerra da. 1794an hasita lehen gerrate karlistara arte, Hego Euskal Herriak 3 inbasio eta guda zibil bi ezagutuko ditu, elizateen eta hiribilduen ogasun sistema guztiz suntsituko dituztenak. Konbentzio errepublikanoaren aurkako gerrak, 1793-1795, kontsumoko artikuluen zergak igo eta, gainera, udalerrietako kutzak hustuko ditu. Horregatik, diru falta dela eta, lur komunalak eta propioak saltzera behartuta egongo dira. Lur komunal eta propio (eraikinak ere bai) hauek dirua prest zeukaten familietara joan ziren, batik bat jabe ertainak edo txikiak ziren familietara, baina kapitala zuten familia gutxi batzuek erosketa itzelak egin eta, duda izpirik gabe botere-harremanetan desoreka sortuz.

\*Napoleoniarren aurkako gerratean Gipuzkoak 44 milioi erreal gastatu zituen. Gastu honi aurre egiteko udalerriek lur, eraikin, errota mordera saldu zituzten, aurreko desoreka fenomeno areagotuz.

\*Prozesu honen eragina bizilagunentzako ez ezik, udalerrien kutxentzako ere penagarriak izan ziren. Sektore xumeentzako, garrantzizkoa zen baliabide amankomun bat kentzea suposatu zuen, hau da, basoa.